

30. LAMINAK DONAMARIAN

Bazuen bertze izen bat herriak?

E?

Donamaria herriak bazuen bertze izen bat?

Ez dakit, igual izanen zuen. Iguale izanen zuen. Donamaria zen famatua, Errota zahar erraten zioten han toki bat, eta han ateratzen zirela laminak. Bai, han laminak ateratzen zirela. Egunez, isil, gauz ikaragarritzko erausiak ibiltzen zirela. Eta, han Bengoetxea, baserri bat ederra, eta Bengoetxean izaten omen zuten neskatoa. Eta, egun batean, urik ez, etxeetan ez baitzen urik, urik ez eta eman omen zioten ferrata eta erran omen zioten: "Zoaz, zoaz, gaixoa eta ekar ezazu ferrata bat ura". Baina, ordurako laminak ari omen ziren ba! bu! ba! ikaragarritzko eta arropa garbitzen, kas! kas! kas! ari omen ziren laminak. Joan omen zen eta, ferrata bete omen zuen urez eta rak! laminek kendu omen zioten ferrata eta, ferrata ura hartu eta joan omen ziren Bengoetxera, Bengoetxeko teilatu gainera. Bengoetxeko teilatu gainetik sukaldean zeudelarik, Bengoetxeko familia, bota omen zuten ferrata eta erran omen zieten: "Hona zuen ferrata, gaua gauzkoendako, eguna egunezkoendako ea Bengoetxeako alaba guretako!". Eta ez zela gehiago agertu.

Nik ez dakit egiak edo gezurrak, erraten zituzten. Eta ikaragarritzko aditu zaharrak erraten zioten. Zelai bat, borda batekin, han lurpean egina zutela etxea eta han egoten zirela laminak. Eta gero, hartu omen zuten, apezak eta denak bildu, eta liho hazia izaten da xehe-xehe-xehe-xehea, hartu omen zuten gaitzeru bat liho hazi, eta apezak konjuratu omen zituen lamina haiek zenbat mila urtetarako ez gehiago agertzeko. Eta akabo, desagertu ziren laminak handik.